

Ordizian, **2017ko urtarrilaren 23an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA**, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** José Miguel Santamaría Ezeiza

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Jose Ignacio Iturrioz Gotor  
Igor Eguren Izagirre  
Mila Sukia Galparsoro  
Iñaki Dubreuil Churruca

EAJ/PNV  
Ordiziako EH-BILDU  
Ordizia Orain  
PSE-EE (PSOE)

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta

**EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.-2017ko urtarrilaren 9ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- Txostenak eta hainbat eskari.
  - 6.000 €tik beherako fakturak.
  - San Bartolomeko berrurbanizazioa.
  - Gaztetxea izandako eraikinean hotela ipintzeko proiektua.
- 4.- Galde-eskeak.

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 15:15**

**AMAIERA ORDUA: 17:45**



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

**1.- 2017ko urtarrilaren 9ko batzordeko akta onartzea.**

Proposamena

**“Ohiko deialdian egin zen 2017ko urtarrilaren 9ko aktaren zirriborroa onartzea”.**

***Aho batez onartu da.***



**2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.**

**Aldeko irizpena jaso dute.**



**3.- Txostenak eta hainbat eskari.**

.- 6000 €tik beherako fakturak.

***Fakturei oniritzia eman zaie.***

.....

-- San Bartolomeko berrurbanizazioa.

ENDARAK prestatutako proiektua aurkeztu du udal arkitektoak eta zalantza eta kontsultei erantzun die.

.....

- Gaztetxea izandako eraikinean hotela ipintzeko proiektuari buruzko informazioa.

Alkate jn.

Jakinarazi du proiektua Jose M<sup>a</sup> Aseguinolaza arkitektoak aurkeztu ziela talde politiko guztiei. Lehenbailehen gaia ixtea eta horri heldzea adostu zuten.

Eguren jn.

Esan du bere taldeak positiboki baloratzen duela hotelaren ideia eta proiektua baina uste du komenigarria litzatekeela ondasuna besterentzeko alternatiba juridiko desberdinak aztertzea eta ondoren eraikitzea hotela. Esan du horri buruzko txosten juridiko bat egokitzen dela.

Talde guztiek partekatzen dute proiektuaren egokitasuna baina formula juridiko onena azertu behar da.

#### Sukia andrea

Adierazi du gainera komeni litzatekeela aztertzea zorua hegaletik banatzeko aukera aztertzea.

.....

- 2017ko Aurrekontuen Aurreproiektua

Kontu-hartzaile jauna puntu honetan azaldu da.

#### Iturrioz jauna

Aurrekontuetako aurreproiektuaren puntu nagusienak azaldu dizkie Gobernu Batzordeko kideei.

#### Alkate jn.

Talde politikoei aurreproiektuaren kopia banatu die paperean eta eta zalantzarik izanez gero adierazi die udaltxera gerturatzeko Kontu-hartzailearekin edota Ogasun zinegotzi delegatuarekin hitz egitera zalantza horiek argitzeko.

.....

#### **4.- Galde-eskeak.**

Ez da izan.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

